


## Aberriaren inpaseak

Joseba Zulaika  
Alberdania, 186 or.  
Irun, 2024

### Sarrera

Gure burua eta gure herria birpentsatzeko leku berri bat eskaini digu Joseba Zulaikak *Aberriaren inpaseak* izenburuarekin argitaratu berria duen saiakera mamitsu eta trinkoan. Kultura- eta politika-harremanak artikulatzeko bestelako begirada bat garatzen duen ikuspuntua eman digu, gizartearen funtsezko eremuetan (politika, euskara, kultura, feminismoa, artea, bertsolaritza...) norabide kolektiboaren hainbat puntu itsuren blokeoak argiztatuz. Giza konplexutasunari aurrez aurre begiratuko dion ikuspegi zabaletik, aberatsa eta emankorra zaigu proposatu duen ibilbidea, idatzitako orriei darien argitasunak eta fineziak, irakurlea, aisa murgilaraziko dute idazlanaren ibilkera mamitsu eta sakonean.

Abiaturuko tesia da inpase-garaian dagoela euskal politika eta gizartea, eta ondorioz, egungo euskal subjektibitatearen gunea ere inpasearena dela; bigarren tesia ere badago, hots, izandako inpaseak beharrezkoak izan direla egungo euskal subjektu modernoak sortzeko, eta subjektu horien eraikuntza-prozesuen kudeaketa zuzenak inoiz ez bezalako aukerak eskaintzen dizkiola euskal gizarteari aurrera egiteko.



### 1. irudia. *Aberriaren inpaseak* argitalpenaren azala.

## 1. Inpasearen narratiba

Zulaikak dio, euskal gizarteak bizi dituen funtsezko hainbat bidegurutze argitzeko, maizen, krisiaren narratiba erabilia izan dela, eta horregatik, gertakizun ikaratiei lotutako etsipenaren narratiba gailendu zaigula. Etsipenera eramaten gaituen narratiba horren kontrapuntuan, *inpasearen narratiba* proposatu digu. Inpasea, *ez aurrera ez atzera, ez hau ez bestea*, erabaki ezineko kokagunea da, leku ez erosoa nolana. Bide baten ala bestearen aukera egitea nahitaezkoa izanik, edozelako aukera eginda ere, beti suertatzen da mingarria norbaitentzat, eta sortzen diren dilemek irtenbiderikgabeak dirudite. Egoera horietan erdibideko formulak dira behar direnak, «*bai baina ez; ez baina bai; agian; omen da; ezin jakin; seguro asko*» formulazioen bitartez adierazten ditugunak dira, lur mugikorretan sartzea bezala da. Egiten duzuna egiten duzula, ezin duzu inoiz erabat asmatu edo irabazi. Inpaseak, antagonismoak gainditzeko tresna kontzeptual gisa darabiltza Zulaikak, hain zuzen, politikak huts egiten duen garaiotan, politikaren azken gordelekua izan daiteke inpasearen ortzi-muga. Politikan nagusitzen diren antagonismoak gainditzeko bidea egiteaz gain, errealitate berriak sortzeko aukerari eutsi egiten zaio inpasetik ikasiko duguna aintzat hartuz gero.

Haren ustez, gizartearen inpaseetan sakontzea, politika garaikidearen hainbat egoera desblokeatzeko bitartekaria izan liteke; izan ere, egungo politikaren egituraketa muturreko antagonismoen jarreraren oinarritzen da. Zulaikak, metodo gisa, inpasearen lotura bikoitzetan sakontzea proposatu digu. Hara nola, inpasearen alderdietan sakonduz, egungo euskal gizartearen alderdi problematikoak aztertu ditu. Egungo blokeoak gainditzeko ikuspegi berri bat ematen digu. Inpasea, aurretiko hainbat okerreko premisa baztertzen lagungarria zaigu, eta horrez gain, bestearen ikuspegia ikustera behartzen gaitu.

## 2. Euskara

Lehenik, euskararen inpasea azaldu digu. Euskal Herrian politikak eman ez digun hiritartasun-kondizioa euskarari eskatu zaionez, euskararik gabeko hiritarra ez da izango benetako euskalduna. Eta hori, funtsean, nazio-gabeziaren ondorioa da. Hiritar hitzunarentzat euskara sakratua gertatzen den bitartean, inposatua gerta daiteke euskal hiritar ez hitzunarentzat. Hementxe hasten dira euskararen inpaseak, baikor eta ezkor egoteko arrazoi ugari aztertzen dituela alde bakoitzean.

Zulaikak duen ikuspegi baikorraren oinarrian bi egia handi daude. Bat, euskarak aurrera egin duela, bestela desagerpenerantz zeraman bidetik, eta bestea, euskararen batasuna eta modernizazioa arrakasta paregabeak izan direla.

Euskararen bilakaeraren zenbakiak eta datuak aztertu ditu, bai inkesta soziolinguistikoen datuen baikortasunaren arabera, bai I. lurrebasok egindako tesian oinarriturik, besteak beste. Eta zalantza sortu diote bien arteko desberdintasun hain nabarmenek, ikuspegi batek bestea ukatzen baitu. Hau da, uste bagenuen erdararen eta elebitasunaren arteko partidano 1-2 galtzen ari ginela, lurrebasok dio errealitatean 1-10 edo 1-11 ari garela galtzen, edo okerrago oraindik. Non dago egia? Inpasearen

logikari jarraikiz, bi ikuspegien arteko arrakalan bertan egon daiteke egia, ezen, hemen erakusten baita datuak ez daudela beren erretorikaren diskurtsotik libre.

Haatik azaldu digu, bi diskurtsoen arteko arrakala inpasearen ikuspegitik begiraturaz gero, bi eraikuntza osagarriak direla. Zulaika, kritikoa da euskarak *minbizia* duela esatera eraman gaituen diskurtsoaren arriskuekin. Egiaren azken frogatzat, minbiziaren metafora azpimarratzen duen mezua erabiliz gero, euskaltzaleak esnatu beharrean, *autobetetzen den profezia* bihurtzeko arrisku handia dago. Izan ere, profezien esparruan, soziologiaren ebidentziak frogatzen du egoera baten definizio okerrak autoprofezia betetzeko portaera bultzatzen duela. Hasierako definizio faltsua egia bihur liteke: «Gaixo larriak jota euskara hilzorian dagoela bihurtzen bada euskaldunen etsipenezko ikuspegi nagusia, profezia errealitate bihurtzeko arrisku handia sor lezake».

Beraz, galdetu beharra dago zein estrategia den egokiena, partida 1-2 galtzen ari garela ala 1-10 galtzen ari garela dioena, zeren eta profeziak motibazioari erasotzen dio zuzenean. Euskararen biziberritzearen partida goleadaz galtzen ari gara edo partida hasi besterik ez da egin? Zein da estrategia egokiagoa? Bestela, zein gazte eta etorkin erakarriko ditugu minbiziak jota dagoen euskararen kausa galdura? Dilema honen benetako etsaia, desio politikoaren hondoa jotzea da. Euskararen egoera geldialdian dagoela egia baldin bada, baikortasuna eta hizkuntzarekin gozamena beharrezkoak izango dira, gogoia pizturik mantenduko badugu.

### 3. Politika

Egoera politikoaren inpasea Espainiako Konstituzioak nazio subirano bakarra onartzen duen heinean gertatzen da. Nazionalitatea onartzen duen arren, Euskal Herriaren benetako nazioaren autodeterminazio-eskubidea ez du onartzen. Beraz, Euskal Herria *da eta ez da* nazioa, eta horrek lotura bikoitzaren inpasean jartzen du euskal politika osoa. Hau da: nazioa ez bada euskal historia politiko eta kulturalaren ukazioa da. Halaber, euskal alderdi abertzaleen arteko harremanetan ere inpasea nabarmena da. Honela azaldu du Zulaikak: a) beren nortasuna baiesteko bestearen aurka egin behar dute; b) badakite indarrak batu gabe Euskal Herriaren soberaniarik ezingo dela lortu; c) alboko estatuak ezin dira saihestu. Bitartean, euskal alderdi nazionalistak Madrilen sozialistekin hitzartzera behartuak aurkitzen dira. Eta Espainiako politika bera inpasearen egoera larrian dago.

### 4. Tradizioa

Talde edo herri etniko bezala deskribatu izan gaituzte euskaldunok eta geuk ere onartu egin dugu definizio hori. Behar dugu tradizioa eta identitatea, baina bide batez, oztopo handiak dira politika berriak sortzerakoan. Iraganeko tradizionalismo kontserbadorean ainguratutako subjektuari gaurko egunerokotasunean gauzatzen diren egiak errekonozitzea kosta egiten baitzaio. Alabaina, gaurkotasunean eraikitzen den subjektua klase sozial guztien gainetik dagoen berdintasunaren ideian oinarritzen da, eta euskaduna izatea bitxikeria bihurtuz gero, inpasea sortzen da. *Euskaldun* eta *vasco* mundu bera dira ala bi mundu kontrajarriak? Hemen

Iztuetaren «endreduak» hartu ditu hizpide, inpasearen zerrenda amaigabea eta lotura bikoitzaren adibide ugari azalduta. Baina gaurkotasunean bizitzeak subjektu berrien ekoizpena ekarri beharko luke, hori da garrantzitsua.

## 5. Estatuaren irudikapena

Hiru baieztapenek laburbiltzen dute euskal estatuaren irudikapena, lotura bikoitzeko inpase trinkoa agertzen dutelarik. Bat, euskararen politika lehenetsiz gero, estatuaren proiektua agorturik dago. Bi, estatuaren proiektua lehenetsiz gero, euskara alboratuta gelditzen da. Hiru, jakin badakigu gaurko euskal gizartearen egoera soziolinguistikoak eta kulturalak ez dutela euskal nazio kulturalaren gainean egindako estatu-erakuntza ahalbidetzen. Ondorioz, estatu politikoa ezin da nazio kulturalaren gainean eraiki, eta nazio kulturala ezin da estatuaren baitan ziurtatu. Egitate horiek etsipen-sentimendua zabaltzen dute.

Halere, estatu-irudikapenak subiranotasunari eutsi beharko dio, azken batean euskaldunok ezin diogu ihes egin estatuaren eta subiranotasunaren arteko labirintoari. Alde batetik, herri bezala irauteko nahitaezkoa dugu subiranotasunari heltzea, eta, bestetik, garai postsubiranoan biziko bagina bezala jokatzeko estrategikoa bihurtzen da.

## 6. Literatura

Idazlearen inpaseak gizartean nagusi diren beste inpaseekin loturan daude. Arrazoi askorengatik da merkatua arazo euskal idazleentzat, merkatuarekiko harremana subjektu kapitalista aseeginarekin lotu beharra baitago. Subjektu hori jaun eta jabe den gizartean, aise bazter lezake hain apala den produktu bat. Baina zer irtenbide dago merkatutik kanpo? Dilema honela laburbildu du Zulaikak: a) erdaraz idaztea tabua da euskal idazlearentzat; b) erdaraz idaztea beharkizun bat da zure publiko ez-euskaldunak irakur zaitzan; c) ez dago dilemari ihes egiterik, mundura irteteko ordua delakoz. Nola jokatu behar du kinkaz jositako esparru literario honetan lanean ari den idazleak? Arazoa ez da orain Aitak aginduak inposatuko dizkigula, orain arazoa da Beste handiari ez zaiola batere axola euskaldunok zer egiten dugun, ez dagoela ukabilkadarik mahai gainean emango duenik. Horrek esan nahi du euskal literaturaren loratzea subjektu modernoaren erabakiari dagokiola, bere gizarte-erakunde eta teknologiaren erronka eta promesa guztiekin.

## 7. Bertsolaritza

Bertsolariak elementu erabakigarri bat jartzen du ageri-agerian publikoaren aurrean: bere subjektibotasuna. Egungo euskal subjektibotasunaren eraldaketak adierazteko ispilu ezin hobea da bertsolaritza non aldaketa historikoak ari dira gertatzen subjektibotasun-prozesuetan, eta aldaketa horiek jendaurrean negoziatzeak ausardia eskatzen du. Bertsolari emakumeek oholtza gainean eragindako krik-karak ez dira etenik gabeak izan baina. Bata, barne-etena izan da, euren buruaren kontra kantatu behar izan dutenean, eta, bestea, kanpo-etena,

emakume bertsolariek, eurek bilatua, barne-ezinegon horren arrazoi sozialak salatzean, eta gizarte patriarkalaren topikoen aurka abestuz. Izan ere, bertsolarien benetako erronka gizarteak bizi eta sufritzen dituen konponezinak nola adierazi asmatzean dago.

Bertsolaria sortzailea eta artista den heinean, beti izango du erortzeko eta porrot egiteko arriskua. Aldi berean, bertso bakoitza dilema kreatiboz josita agertzen zaio bertsoa sortzeko aukera bakoitzean. Hori nahiko ez balitz bezala, txapelketa ere hor dago, eta bertsolariari inpase erantsiaren egoera muturrekoena ezartzen dio. Espektakuluaren aurrean makurtzea. Anbibalentzia handiak sortzen ditu txapelketak. Batetik, txapelketaren bitartez euskarak gizarte zabalean eta komunikabideetan azaltzen duen presentzia aparteko ikusgarritasuna eranstean dio bertsogintza-sistema osoari, bestetik, bertsolaria bera amildegi-ertzera bultzatzen du, trantzeko egoera irentsi beharraz.

Trantze horri erantsi behar zaio bertsolari feministek oholta gainera ekarri duten inpase erantsia. Batetik, generoaren arrakalari lotutako borrokaren isla da, eta bestetik, gizon bertsolariaren nagusitasuna eta irudi unibertsala kolokan jartzea. Hala ere, emakumea bera izatea, guztiz problematikoa bihur daiteke. Generoa bihurtu da borroka feministaren leku nabarmena bertsolaritzan, gizartean gertatzen den bezala.

## 8. Desioaren inpaseak

Kapitalismoak gozamen aseezinerantz bideratzen gaitu subjektuaren desio eta fantasiekin jokatzu. Desio horiek sistemak inposatuak diren heinean, merkantilizazio-logikaren arabera bideratzen dute subjektuaren nahia. Kapitalismoak, ez produktua bakarrik, horren beharra izango duen kontsumorako subjektua ere, sortu egin behar du. Horrela jokatzu, modernitate kapitalistak bere Jainkoa inposatu du: merkatua. Merkatuak erabakitzen du gaur egun zer eta nola desiratu behar dugun.

Kapitalismoaren promesa da, salgai dagoen kontsumo-produktua erosiaz, subjektuaren hutsune oro senda daitekeela. Subjektuaren eta desio horren helburuen artean sortzen den harreman aseezina elikatzean dago kapitalismoaren arrakastaren gakoa. Aseezintasuna bihurtzen da kontsumitzaile kapitalistaren motorra. Gogo aseezina piztuz eta kontsumo bidez asetzeko promesa eskainiz, kapitalismoak unean uneko insatisfakzio amaiezina ziurtatzen du. Kapitalismoak inposatzen digun fantasien plaga amaiezina baita. Eta horiekin batera bere emozio neoliberalak saltzen digu: zoriona.

Zoriona fabrikatzeko industria oso bat zabaldu da eta ez bazara zoriontsu zerbait gaizki egiten ari zarelako izango da. Hementxe dago subjektu kapitalistaren oinarritzko inpasea, hots: gaur egungo kultura kontsumistak agindu egiten digu gozamen neurrigabera. Eta agindu bete ezinak zorionik ezaren porrota biderkatu egiten du. Kapitalismoak inposatzen dituen mandatuen (Bidaia ezazue!, Izan zaitez zeu!, Zoriontsua izan zaitez!) inertziak inpasean amaitzen dira beti. Horietaz ohartzea zeregin kritikoa dela azaldu du Zulaikak.

## 9. Ondorioak

Inpasearen azterketa egiteak bizi ditugun kontraesanak garbiago ikusteko balio digu, eta aldi berean, gizarte justuago baten alde, benetako desioa indarberritzeko balio dezake. Aldeko edo kontrako antagonismotik harago doa inpasea. Zulaikak inpasearen lur mugikorretan sartuz eta sakonduz aztertu du egungo inpase-aroa. Saiakeraren ibilbidea «intelektualaren pesimismoa eta borondatearen optimismoaren» arteko oreka bila jardun ondoren, baikortasunak irabazi du dema. Azaldu digu hegemoniaren krisia dela inpase-aroaren beste esanahia. Politika eta boterea ezin baitira alderdietara edo hauteskundetara murriztu, jendearen oniritzia lagun, kultura berri bat sortzea baita gakoa. Politika ekoizpen bezala ulertu behar dugu. Boterearen izaera mundu modernoan, arazo politiko, moral, intelektual, ideologiko, eta sexualen inguruan eraikitzen baita, eta hegemoniaren arazoa ordena kultural berri baten arazoa da betiere. Aginte hegemonikoak ez dira betiko, ez dituzte guztiak euren ganatzen, eta barrutik inpasez beterik daudela dio Zulaikak. Konfliktua eta zatiketa ez dira harmonia orokor baten mesedetan ezabatu litezkeen alderdi ezkorrak, alderantziz, nahitaezkoak dira demokrazia plural batean. Hegemoniaren borroka definizioz da amaiezina, eta ondorioz, identitate sozialak ez dira inoiz erabat osatuak, beti daude formazio sozial eta subjektibo desberdinetara irekita. Hori, demokraziaren baldintza da.

Euskal Herrian bizi garen subjektu historikoak askotarikoak gara. Identitate politiko klasikoak indarra galtzen ari diren egunotan, inpasez josita dauden subjektu erdibituak erakar daitezke hainbat proiektu politiko indarberritzeko. Subjektu tradizionaletik subjektu modernora igarotako etenak aztertu ditu Zulaikak, subjektu mota ugari azalerau dituela. Subjektu horien inpaseek zerikusia dute euskararekin, feminismoarekin edo politikarekin noski. Beraz, gizarte justuago baten esperantza uztartu dio subjektu izatearen apustuari. Subjektu horien guztien zeregina arrakalak agerraraztea izanik, eta ziklo politikoa aldatzen ari dela ikusirik, hegemonia berriak sortzeko garaian kokatu du egungo Euskal Herria.

*Jexux Larrañaga Arriola*